

BASAGAIN HERRIKO (ANOETA, GIPUZKOA) INDUSKETA
ARKEOLOGIKOAREN TXOSTENA

XXXI. EKINALDIA

2025EKO ABUZTUA ETA IRAILA



2025eko iraila

Historiaurreko Arkeologia Saila

Aranzadi Zientzia Elkarte

Donostia

Zuzendariak: Xabier Peñalver Iribarren eta Eloisa Uribarri Agirrebengoa

SARRERA

Abuztuan eta irailean 20 pertsonako lantalde batek egindako landa-lanek herriaren ekialdeko terrazaren gune batzuei eragin diete, gehienak 2024ko ekinaldian esku hartutakoak, nahiz eta gehienak geldiarazi egin behar izan ziren iaz izandako euri-jasa eta uholdeen eraginez.



2025eko ekinaldiko lanak

Baina indusketa-lanez gain, ekinaldian zehar bilera batzuk egin ditugu eta ikustaldi bat egin dugu aztarnategira Anoetako alkatearekin eta udalaren lantalde teknikoarekin, esparrua mantentzeko baldintzak hobetzen joateko, bai landaretzaren urteroko garbiketari dagokionez, bai lan horiek mugakide dituzten gunetara (hau da, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin jabeei erosi zitzaienten esparruaren perimetro osoa inguratzen duen hamar metroko zabalerako zerrendara) zabaltzeari dagokionez.

HERRIAREN DESKRIBAPENA

Basagaingo herri harresitua izen bereko mendian dago, itsas mailatik 295 m-ko altuerara, eta Oria ibaitik 227 m-ko altuerara eta 650 m-ko distantziara, Iruraren parean, Anoeta (Gipuzkoa) udalerrian.

Muino luzexka batean kokatua, lurrez estalitako harresi batek oso-osorik inguratzen du, nahiz eta horren ibilbidearen gehiengoan ezponda baino ez den ikusten; inguruaren ikuspegi zabala dauka, eta horrek Oria ibaiaren ibilguaren zati handi batekiko kontrol handia ematen dio. Esparruko zenbait aldetatik ibai beraren gainean kokatuta dagoen Buruntzako herria (Andoain) ikusten da.

Guztira 2,81 hektareako azalera dauka, eta gailurrean ipar-hego norabidean 100 m luze eta ekialde-mendebalde norabidean 25 m zabal den (2500 m², beraz) eremu bat dauka. Dena den, herriaren terrazadun eremuak garrantzi handia du, arkeologia-lanek erakusten duten moduan.

Eremu hori esparruaren ekialdeko aldetik doa eta hegoaldean mendebaldera biratzen da; ibilbide osoa harresiaren ondoan egiten du eta kota oso uniformea mantentzen du. Terraza horrek 30/35 m-ko zabalera hartzen du toki batzuetan, esku hartu dugun eta egituren aztarnak eta material ugari aurkitu diren eremuan, hain zuzen ere. Esparru honetako eremu lauek 11250 m²-ko azalera hartzen dutela kalkulatu da, hau da, harresitutako azalera osoaren % 40. Herriaren gehieneko aldapa % 32,42koa da, eta gutxienekoa berriz % 22koa.

Esparruaren goiko aldean, unerren batean harria erauzi zela dirudien bi leku daude; lehenak 40 m² inguruko azalera dauka, eta bigarrenak, berriz 80 m² ingurukoa, haitzaren ebaketa bertikalaren alderdian 2,20 m-ko gehieneko sakonera duelarik.

Material arkeologikoei eta C14 bidezko datazioei esker dakigu, herriaren induskatutako eremua gurearen aurreko aroaren azken mendeen eta gurearen lehenengoan artean kokatzen zela. Horrela, eskuz eta tornuz egindako zeramika-tipologia anitzaz eta jarduera metalurgiko garrantzitsuaren aztarnez gain (aleak eta ekoizpen-jardueraren aztarnak), beste ale esanguratsu batzuk nabarmentzen dira; besteak beste, beira-orezko besoko zati bat (K.a. 220 eta 80. urteen artean datatua, eta zehatzago, ziurrenik, K.a. 175 eta 125 urteen artean), Bascunes txanpon-etxeko zilarrezko denarioa, eta oin alderantzikatuko eta Iturissa motako fibulak.

Herri honetan orain arte lortutako C14 bidezko datazioak hauek dira:

2360 ± 120 BP, 2320 ± 90 BP, 2310 ± 55 BP, 2170 ± 80 BP, y 1600 ± 80 BP

2025KO EKINALDIAN EGINIKO LANAK

Indusketa-lanak hiru astez luzatu dira, 2025eko abuztuaren 18tik irailaren 5era.

20 kidek osatutako lantaldeak, nahiz eta gehienak Arkeologiako ikasleak eta Historian lizentziatuak izan, bi zaharberritzailereren laguntza izan du; hain zuzen ere, horiek egin dituzte aurreko ekinaldian agertzen hasi zen tamaina handiko lurrontzia ateratzeko lanak.

Aplikatutako metodologia aurreko ekinaldietan erabilitakoaren antzekoa da: ipar-hego eta ekialde-mendebalde norabideetako ardatzak dituen sareta batetik abiatuta, 5 x 5 metroko koadroak mugatzen dira eta horiek, aldi berean, lau koadrantetan banatu.



Harresiaren guneko estalkia kentzeko hasierako lanak

Orokorrean 10 cm-ko ohiko geruzak induskatzen ditugu, maila edo egitura berriak agertzen direnean eta puntu sentiberetan izan ezik

Geruza bakoitza amaitu ostean, zorua 1:20 eskalan marrazten dugu, dagozkion kotak hartzen dira eta argazkiak ateratzen dizkiogu.

Ekinaldian zehar gunek hauek induskatu ditugu:

1. BURDIN AROKO ONTZI HANDIAREN ETA KARLISTALDIKO EGITUREN HONDAKINEN GUNEA

Gune horrek 13U koadroaren ekialdeko erdia eta 13V koadro osoa hartzen ditu. Ekinaldi honetan amaitu dugu Bigarren Burdin Aroko mailan intrusiokoak ziren karlistaldiko azken elementuak induskatzen. Horri esker jarraitu ahal izan dugu esku-hartzen aurreko ekinaldietan eskuz egindako lurrontzi handi baten aztarnak (batez ere haren ertzari zegozkionak) agertutako eremuan.

Ekinaldi honetan berreskuratutako aztarnak ia osorik osatzen dute ontziaren goiko aldea; horrez gain, gorputzaren zati zabalak eta hondoaren zati batzuk ere berreskuratu ditugu Horiekin guztiekin, ziur aski, Basagain aztarnategiak aurkitutako biltegitratze-ontzi handiena berreraiki ahal izango da, haren aztarnak Irungo Gordailuan kontsolidatu eta zaharberritu ondoren.



Intrusiozko egitura karlistaren gunea, hura kendu ostean

2. MENDEBALDEKO GUNEA

16R eta 17R koadroen zati bat hartzen du; bertan utzi egin behar izan genion induskatzeari 2024an, euriteen ondorioz.

Gune honetan, orain esku-hartutako guneetatik gertu dagoeneko induskatua, metalezko material aipagarriak (fibulak), nahiz eskuz eta tornuz egindako zeramikak, eta kiskalitako ezkur-hondakin ugari agertu dira. 2025ko aztarnen artean metalezkoak eta ezkur gehiago ere aurkitu ditugu.

Hurrengo ekinaldian bi geruza jaitsi ondoren, aurreko ekinaldietan inguruko eremuan induskatutako mailara iritsiko gara.



Mendebaldeko gunea 2025eko esku-hartzean zehar



Mendebaldeko gunea 2025eko esku-hartzean zehar

3. HEGOALDEKO EREMUA




17S koadroko 3 x 2 metroko gunea batean esku hartu dugu. Aurreko ekinaldietan zati batzuetan dagoeneko induskatutako gainazal hori berreskuratu egin dugu, zepa aztarna asko agertzen zirelako. 2025ean ere antzeko aurkikuntzak egin ditugu.



Hegoaldeko eremuaren indusketa 2025ean



Hegoaldeko eremuaren indusketa 2025ean



Esku hartutako eremuaren sareta

MATERIALAK

Herri honetan ohikoa den moduan, aztarna gehienak zeramikazkoak dira, gehienak eskuz eginak, eta gutxi batzuk tornuzkoak.

Era berean, beirazko lepoko-ale zuri bat, burdinazko materialen zatiak eta zepa ugari berreskuratu ditugu.

Lurraren azidotasun handiak zaildu egiten du hezurrezko aztarnen kontserbazioa. Dena den, aurtengo ekinaldian faunari dagozkion aztarna horietako batzuk berreskuratu ditugu, eta ikerketa-prozesuan daude.

Baina berreskuratutako material guztien artean, aurtengoan eskuz egindako zeramika zati ugariak nabarmendu behar dira; aurreko ekinaldietan dagoeneko aurkitu genituen zati batzuk, eta Irungo Gordailua zentroan zaharberritzen ari dira, 2024ko txostenean argazkiekin adierazi genuen moduan.

Hauek dira berreskuratutako aztarnak, materialen tipologiaren arabera banatuta:

Litikoa:

10 errekarri

4 suharri

17 leuntzaile

Intzisiodun 5 lauza

1 errota zati

Zeramika:

1308 zati orokor

30 ertz, hondo edo apaindura zati

Ontzi handiari dagozkion 21 poltsakada

Tornuzko 73 zeramika zati

Burdina:

26 aztarna

3 mineral zati

97 zepa zati

Beira:

Lepoko-ale bat

Kereta:

842 aztarna

lkatza:

70 poltsakada

Hezurra:

1 fauna zati

9 hezur erre

Aztarna karpologikoak:

3 ezkur zati

Lur-laginak:

2 poltsakada



Ontzi handiaren ertz-zatiak, 2025ean aurkituak, 2023 eta 2024an 13V koadroan aurkitutako ontzi berarenak



2023an aurkitutako zeramikazko ontzi handiaren ertza zaharberritze-prozesuan

BESTE JARDUERA BATZUK ETA ONDAREA JENDARTERATZEA

Indusketak iraun duen hiru aste horietan zehar ikustaldi bat egin da inguruko jende helduarekin. Salbuespenez ekinaldia 15 egunez aurreratu genuenez, ezin izan dira egin aurreko urteetan egiten genituen eskoletako umeen ikustaldi ugariak, oraindik ikasturtea hasi gabe baitzegoen.

Urtero bezala, Udala arduratu da indusketa-ekinaldia hasi aurretik Basagain herri osoko belarra mozteaz.

Azaroan (18an ziur aski) hitzaldi bat emango dugu Basagain herrian abian dauden lanei buruz, Anoetako auditorioan.

LAN-TALDEAREN OSAKETA SEXUAREN ARABERA:

Indusketako lan-taldea 20 pertsonak osatua egon da ekinaldi honetan, horietatik 12 emakumezkoak ziren eta 8 gizonezkoak.

LAN ARKEOLOGIKOEN OSTEAN HARTUTAKO BABES-NEURRIAK

Lanak amaitu ostean esku-hartutako eremua estali dugu, aurreko ekinaldietan bezala, landaretza hazi ez dadin eta indusketa-eremua hondatu ez dezan, eta aldi berean lanak errazteko.



Indusketa-eremua estaltzeko lanak, 2025eko ekinaldiko azken egunean

Era berean, gaur egun jabetza publikokoa den herri harresitua mugatzen duten mugarrien kokapena begiratu dugu berriz. Mugaketa horrek aurrez deklaraturako arkeologia gunea nahiz Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza baten bitartez herriaren inguru osoan lurjabeei eskuratutako 10m-ko zerrenda zehazten ditu.

Oraingoan, ikustaldi zehatz bat egin dugu aztarnategira alkatearekin eta udalbatzaren zati batekin, eta udal-teknikari eta -langile batzuekin, herriaren inguruko eremuak pixkanaka sasiz garbitzen joateko, jabeei aurrez erosi zitzaien azaleran.